

Denek maite dute, hain da jatorra.



Beste modu batzuk ere baditugu euskaraz, aurreko esaldiaren esanahia adierazteko:

- **Hain da jatorra, non denek maite baitute.**
- **Hain da jatorra, ezen denek maite baitute.**
- **Hain da jatorra, non denek maite duten.**
- **Hain da jatorra, ezen denek maite duten.**
- **Denek maite dute: hain da jatorra, izan ere.**
- **...**

Ahozko hizkeran, ordea, oso zabalduak ditugu tankera honetako esamoldeak:

*Hain da ederra, ezin **diodala** begiratzeari utzi.

*Hainbeste jaten du, hamar kilo hartu **dituela**.


Halako esamoldeak, Hegoaldean eguneroko hizkeran oso hedatuak badaude ere, ez dute tradiziorik eta ez dira gomendagarriak. Izan ere, **-eLA** atzizkiak ez du inoiz balio hori izan euskal tradizioan.

Aurreko bi esaldiak adierazteko baditu euskarak bide jatorragoak. **Menderakuntzaz** balia gaitzke, esaterako. Honela:

- **Hain** da ederra, **non** ezin **baitiot** begiratzeari utzi.
- **Hain** da ederra, **ezen** ezin **baitiot** begiratzeari utzi.
- **Hain** da ederra, **non** ezin diodan **n** begiratzeari utzi.
- **Hain** da ederra, **ezen** ezin diodan **n** begiratzeari utzi.



- **Hainbeste** jaten du, **non** hamar kilo hartu **baitu**.
- **Hainbeste** jaten du, **ezen** hamar kilo hartu **baitu**.
- **Hainbeste** jaten du, **non** hamar kilo hartu ditu**en**.
- **Hainbeste** jaten du, **ezen** hamar kilo hartu ditu**en**.



Alborakuntzaz balia gaitezke, mendeko perpausen ordez. Honela:

- **Hain** da ederra, ezin diot begiratzeari utzi.
- **Hainbeste** jaten du, hamar kilo hartu ditu.

Edota, ordena aldatuz, honela:

- Ezin diot begiratzeari utzi, **hain** da ederra.
- Hamar kilo hartu ditu, **hainbeste** jaten du.

Zernahi gisaz, alborakuntza bidez osatzen diren esamolde horiek hizkuntza-maila **neutroan** eta **lagunartekoan** gertatzen dira batez ere. Menderakuntza, berriz, hizkuntza-maila **jasoan** da ohikoagoa besteetan baino.

Gehiago jakiteko:

Euskal Gramatika Lehen Urratsak – V
Euskaltzaindia, 1999: 445-464

